

HIRI-HONDAKINAK BILDU ETA GARRAIATZEKO IBILGAILUZ HORNITZEA KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

1.KONTRATUAREN XEDEA.....	1
2.EZAUGARRI OROKORRAK.....	1
3.LOTE BAKOITZAREN EZAUGARRI ESPEZIFIKOAK.....	2
4.HORNITZEKO UNITATEEN AURREIKUSPENA.....	3
5.BALDINTZA OROKORRAK.....	3
6.ATZETIK KARGATZEKO KAXA BILTZAILEEN EZAUGARRI TEKNIKO OROKORRAK.....	3
7.XASISEN EZAUGARRI TEKNIKO OROKORRAK.....	7

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea hiri-hondakinak bildu eta garraiatzeko ibilgailuz hornitzea da; atzetik kargatzekoak izan behar dute, hainbat edukiera bolumetrikotakoak, baldintza-agiri honetan eta administrazio-klausula berezien agirian zehazturiko lote eta baldintzen arabera.

2. EZAUGARRI OROKORRAK

Ibilgailuak atzetik kargatzekoak izango dira, eta erabilera nagusia gaika poltsatan eskuz biltzea hiri-hondakinen honako zatiki hauek:

- Landare- eta animalia-jatorriko gai organikoa, sukaldean prestatua eta prestatu gabea.
- Papera eta kartoia.
- Ontziki arinak.
- Erreusa.

Zatiki bakoitza gaika biltzeko erabiliko dira ibilgailu guztiak, aurrez bildutako zatiki-hondakinekin kontaktuan egon diren karga-kaxa eta elementuak garbitu ondoren. Ibilgailuak egokiak izan behar dute erabilera horretarako.

Gainera, bilketa-ibilbide guztietan jasoko dira pixoihalak, konpresa edo zapi higienikoak eta antzekoak, aparte utzita zer zatiki jasotzen den ibilgailuaren karga-kaxan. Beraz, ibilgailuak ekipatuta egon behar dute kaxa, kaxa handi, gordailu edo antzekoekin, ibilgailuaren multzoan integratuta, karga-kaxatik aparte, ahalik eta edukierarik handienekoak, eta ahalik eta erosoena erabiltzeko eta deskargatzeko ere.

Ibilgailuak hiri-hondakinak eta antzekoak biltzeko erabiliko dira, horien jatorria etxean nahiz merkataritzan edo industrian egon.

Eskuzko poltsaketaz gain, 10 eta 20 litro arteko edukierako ontziak erabiliko dira etxeko bilketarako. Halaber, atzetik kargatzeko edukiontziak erabiliko dira, normalizatuak, 60 eta 1.100 litro artekoak, merkataritza eta industriako bilketak egiteko. Beraz, ibilgailuek edukiontziak gora jasotzeko gailuak integratuta izan behar dituzte, karga-kaxa husteko lanak egoki egiteko moduan.

Kamioi guztien oinarritzko diseinuak kontuan izan behar ditu hondakinak biltzeko zerbitzu bati eska dakizkiokeen baldintzak, nola baitira:

- A. Ahalik eta zaratarik gutxien egitea
- B. Ahalik eta gas gutxien botatzea ihes-hoditik.
- C. Ahalik eta maniobragarritasunik handiena.
- D. Ahalik eta erlazorik onena edukieraren eta dimentsioen artean.
- E. Ahalik eta lixibiatuen bilketarik onena.
- F. Aplikatu beharreko legeriak eta araudiak ezarritako baldintzak betetzea.

3. LOTE BAKOITZAREN EZAUGARRI ESPEZIFIKOAK

- **1. lotea.** Kaxaren barruko edukiera garbia 5 m³koa izango da gutxi gorabehera, trinkotze-sistematik gabe. BGM (MMA) 3500 kg-ko bi ardatzeko xasisean muntatuta joango da. Ahal bada, kargaren banaketa orrazi, pala edo antzekoen bidez egiteko sistema izango du.
- **2. lotea.** Kaxaren barruko edukiera garbia 8 m³koa izango da gutxi gorabehera, aparte utzita toberaren edukiera. Trinkotzeko sistema izango du. Kasko bakarreko kaxetarako, edukiera ekipo klasiko baten kaxa+tobera multzoarenaren baliokidea izango da. Bi ardatzeko xasisean muntaturik egongo da.
- **3. lotea.** Kaxaren barruko edukiera garbia 12 m³koa izango da gutxi gorabehera, aparte toberaren edukiera. Trinkotzeko sistema izango du. Kasko bakarreko kaxetarako, edukiera ekipo klasiko baten kaxa+tobera multzoarenaren baliokidea izango da. Bi ardatzeko xasisean muntaturik egongo da.
- **4. lotea.** Kaxaren barruko edukiera garbia 16 m³koa izango da gutxi gorabehera, aparte toberaren edukiera. Trinkotzeko sistema izango du. Kasko bakarreko kaxetarako, edukiera ekipo klasiko baten kaxa+tobera multzoarenaren baliokidea izango da. Bi ardatzeko xasisean muntatuta egongo da.

- **5. lotea.** Kaxaren barruko edukiera garbia 20 m³koa izango da gutxi gorabehera, aparte toberaren edukiera. Trinkotzeko sistema izango du. Hiru ardatzeko xasisean muntatuta egongo da.

4. HORNITZEKO UNITATEEN AURREIKUSPENA

Kontratuak irauten duen 2 urteetan hornitu beharreko unitateen aurreikuspena agertzen da ondoren:

- **1. lotea.** 2 unitate.
- **2. lotea.** 3 unitate.
- **3. lotea.** 6 unitate.
- **4. lotea.** 2 unitate.
- **5. lotea.** 2 unitate.

Aurreikuspen hau orientazio bat besterik ez da. Hiri-hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzuen premien arabera egingo dira unitateen eskaerak.

5. BALDINTZA OROKORRAK

Ibilgailuak erabat karrozatuak entregatu behar dituzte esleipendunek, eta beraiek izango dira kaxaren eta xasisaren arteko egokitasun eta bateragarritasun erabatekoaren arduradunak, eta hori ondorio guztietarako (teknikoa, legezkota, etab.). Ibilgailuak bere instalazioetan entregatuko zaizkio Mankomunitateari, zerbitzuan hasi ahal izateko aseguruak bakarrik behar dutela, eta esleipendunen erantzukizunak izango dira, besteak beste, hauek:

Xasien garraioa karrozatze-zentrora, baita lekualdaketa hauek nazioartekoak badira ere.

Ibilgailuen Azterketa Teknikoaren izapidetzea.

Matrikulazioa.

Tasak eta zergak.

Mankomunitatetik adierazitako logotipo eta legendekin errotulatzea (horien diseinua Mankomunitatearen kontura izango da).

Ibilgailu karrozatu, legeztatu eta errotulatuen garraioa eta entrega Mankomunitatearen instalazioetan, Debagoieneko eremu geografikoan (Gipuzkoa).

6. ATZETIK KARGATZEKO KAXA BILTZAILEEN EZAUGARRI TEKNIKO OROKORRAK

Baldintza teknikoen agiria – hiri-hondakinak bildu eta garraiatzeko ibilgailuz hornitzea

Kaxak entregatzeko unean indarrean dagoen Makina Zuzentzarauaren, segurtasun eta osasunari buruzko betebeharrak arauemaileen, eta aire zabalean erabiltzeko zenbait makinak ingurunean eragindako hots-emisioak arautzen dituen araudiaren arabekoak izango dira kaxak.

Esleipendunek beharrezko den edozein aldaketa posible egin beharko dute bai xasisean eta bai kaxa trinkotzailean erabateko ahokadura ziurtaturik geratzeko, baita elementu eta sistema guztien bateragarritasuna eta indarrean dagoen legezko araudia betetzea ere.

Kaxak karga-tobera klasikoa izan dezake, *tail-gate* motakoa, edo kasko bakarrekkoa, tobera-prentsa multzoa integratuta duela. Baldintza-agiri honetan adierazten diren gaitasunak kaxa klasikoari buruzkoak dira, toberaren edukieraz aparte. Hau kontuan izan behar da kasko bakarrekoko ekipamenduekin edukieren konparagarritasuna ezartzeko.

Hala badagokio, karga-toberaren edukiera zehaztuko da, baita hondakinak prozesatzeko abiadura ere, minutuko m³tan, eta prentsaren lan-zikloaren iraupena, segundotan.

Ekipoek segurtasun, sendotasun, iraunkortasun, hermetikotasun eta garbitasun-egoera egokian egongo dira, gutxienezko ekipamendu honekin:

- Edukiontzia jasotzekoarekin atzean, atzetik kargatzeko ontziak eta edukiontzia, gutxienez 60 eta 1.100 litrokoak, manipulatzeko modukoa, orrazi-sistemeekin eta atzemateko besoekin (DIN buloi arra). Ahal bada, iraulketak zenbatzeko sistema.
- Jasotzeko mekanismoak segurtasun-balbulak izan behar ditu hodi malguen hausturaren aurrean babesteko edo beste gailu batzuk ustekabea beheratu ez dadin.
- Aginte-koadroa kabinan, kanpokoez gain. Kabinan hautapen-kommutadorea jarriko da, aldi berean kontrol batek bakarrik funtzionatzeko duela bermatzeko.
- Ezinezkoa izan behar du goratzeko mekanismoa erabiltzea ibilgailua desplazatzen den bitartean eta pausagune-posizioan segurtatuta egon behar du.
- Sistema hidraulikoaren hodi eta akzesorio guztiak zerbitzu-presioa baino gutxienez bi aldiz haustura-presio handiagorako diseinatu behar dira, eta ibilgailuaren alboetan kokaturik daudenean babestuta egon behar dute bat-bateko hausturak eragindako olio-jaurtitzeen aurrean. Kalitate handiko lotura malguak, gutxienez bi mailakoa gune kurbatuetan eta lau mailakoa gune zuzenetan.
- Huste-fasean, edukiontzia eskuz astindu ahal izango du.
- Goratzeko multzoaren neurriak behar hainbatekoak izango dira 1.100 litroko edukiontzia gai organikoz guztiz beteta erabateko segurtasunez jasotzeko,



Baldintza teknikoen agiria – hiri-hondakinak bildu eta garraiatzeko ibilgailuz hornitzea

atzemateko segurtasunekin, edukiontzia eror ez daitezen ez deskargan eta ez astindutakoan.

- Kabinak larrialdietan geratzeko botoia izango du, ekipamenduaren funtzionamendua desaktibatze, ibilgailuaren martxako segurtasun-funtzio guztiak mantenduz. Kanpoko botoietan ere egongo da larrialdietan geratzeko sakagailu bat.
- Prentsa-tobera sistemak egokia izan behar du paper-kartoi, ontziki arin, gai organiko eta erreus hondakinak deskargatu eta irensteko.
- Plaka trinkotzaile-eiektoreari aplikaturiko presioaren kontrol-sistema kabinan, gutxienez 4 posiziokoa, bana bilketa mota bakoitzerako (papera-kartoi, ontziki arinak, gai organikoa eta erreusa), bilketa-langileak (gidariak edo peoiak) mekanikako ezagupenik gabe erraz erabiltzeko modukoa. Posizio bakoitzaren presioak birprogramagarria izan behar du. Zehaztu egingo da langileak izango duen hautatzeko modua (software pantaila, eragingailu mekaniko edo besteren bidez).
- Trinkotze-sistemaren laneko gehieneko presioa zehaztuko da, baita paper-kartoi, ontziki arin eta erreus zatikietan espero daitezkeen trinkotze-ratioak ere.
- Pixoihalak biltzeko kaxa, kaxa handi, tanga edo antzekoekin, ibilgailuaren multzoan integratuta, karga-kaxatik aparte, ahalik eta edukierarik handienekoak, eta ahalik eta erosoena erabiltzeko eta deskargatzeko ere.
- Kasko bakarrekoak ez diren ekipamenduen kasuan, estankotasun-junturek kaxaren eta tailgate arteko ukipen-perimetro osoa estaliko dute ahal den goraino.
- Kaxak ahal den estankotasun handiena ziurtatuko du estalkiitsu, itxitura eta abarren bidez, lixibiatuak kanpora irtetea eragozteko. Lixibiatuak irteteko balbula eragingarriak izango ditu.
- Lixibiatuak jasotzeko erretilua edo tanga, itxitura lasterrarekin edo deskargako balbularekin, ahal bada bai kaxaren aurrealdean eta bai atzean, erraz hustu eta garbitzeko modukoak.
- Ahal bada, tobera hosgabetu edo intsonorizatua.
- Argi birakari distiratsuak, araudiak eskatzen dituenak, anbar kolorekoak, goiko aldean, angelu guztietatik ikusteko modukoak eta langileak ez itsutzeko moduan kokatuak.
- Dagozkion banda erretroislatzaileak izango ditu, aplikatu beharreko araudiaren arabera.

- Ohartarazle akustikoa, atzeko atetzarra goratuta mugitzen bada kamioia.
- Gauez lan egiteko beharrezko argiak: tobera, edukiontziak manipulatzeko gunea, etab. Gutxienez 75 lux-eko argitasuna, lurretik metro betera neurtuta.
- Koipeztatze automatiko zentralizatua gune posible guztietarako: kaxa, jasogailua eta xasisa.
- Ale banatan estriboak, tolesgarriak, presentzia-kontrolarekin eta ez labaintzekoekin. Atzera-martxa ezgaituta, langilea estriboan dagoenean. Dardara edo bibrazio maila kanpo-erakundearen neurketa-ziurtagiriarekin justifikatuko da 1311/2005 ED-ren arabera.
- Segurtasun-sistemak erabiliko dira: larrialdietan geratzeko, segurtasuneko hesi materialak eta immaterialak, zati mugikor eta ertzak babesturik eta seinaleztatuta.
- Kontrol-aginteak kaxaren alde banatan. Sakagailu txirrina alde banatan.
- Margotzea: kaxa trinkotzaileak xasisaren kolore berean egon behar du margotuta (zuriz) eta dagozkion logotipo eta legendekin errotulatuta egon behar du, Mankomunitateak entregaturiko diseinuen arabera.

Erabilera eta mantentze-lanetako eskuliburuaren kopia bat euskarri digitalean eta bi paperean entregatu behar dira gaztelaniaz, ibilgailuaren elementu guztien desmuntatzearekin eta zirkuitu elektriko, pneumatiko edo/eta hidraulikoen planoekin. Prebentzio-mantentzea eta mantentze-programa izan behar ditu, eta mantentze-prozeduraren informazio zehaztua eman erabili aurrekoa, ondorengoa eta aldi behingoa. Segurtasun-informazioaren atal espezifiko bat, mantentze-lanetarako segurtasun-neurri, arreta orokor eta segurtasun-jardunbideekin. Halaber, mantentze-lanetako langileen prestakuntzarako gutxienezko eskakizunei buruzko informazioa ere behar du.

Gutxienezko prestakuntza-ikastaroak (prestakuntza teknikoa eta laneko arriskuen prebentziokoa), esleipendunek egin beharrekoa:

Gidari eta biltzaileentzat, kontrol-elementu, edukiontzien manipulazio eta abarri buruzkoa.

Lantegi edo tailerreko langileentzat, mantentze eta konpontze-lanei buruzkoa, Tailer-buruaren iritziz behar hainbat luzea (10-15 ordukoa), teoria eta praktika barne.

Ikastaroak Debagoieneko Mankomunitateko eremu geografikotik kanpo egiten badira, sorturiko gastu guztiak esleipendunaren kontura izango dira.

Parte-hartzaile bakoitzari jaso duen prestakuntza egiaztatzeko diploma emango zaio, eta Mankomunitateari parte-hartzaileen zerrenda, prestakuntza-orduen kopuruarekin eta emandako irakasgaien edukiarekin.

Saldu ondoko zerbitzua: saldu ondoko zerbitzua zehaztu behar da, lantegi ofizial baimenduen sarea zehaztuz, baliabide material eta giza baliabideak, langileen prestakuntza teknikoa eta horien kokapen geografikoa, baita ordezkoko piezen biltegiaren kokapena ere. Hornitzaileak ordezkoko pieza jatorrizkoen hornikuntza bermatu behar du ondorengo 10 urteetan ibilgailuak hartzen direnetik aurrera.

Bermea: Bermearen norainokoa eta iraupena zehaztuko da, gutxienez administrazio klausula berezien agirian zehazturikoa betez.

Halaber, honako hauek aurkeztuko dira:

- Koadro osoa, kaxa egiteko erabilitako materialak adieraziz, bertan zehaztuz erabilitako altzairuen kalitatea, lodierak, gogortasuna, merkataritza-deitura, etab.
- Eredua merkaturatu zen hilabetea eta urtea.
- Adostasun Adierazpena.
- CE markatua.
- Segurtasun-ziurtagiriak.
- Kanpoko erakunde baten ziurtagiria, aire zabalean erabiltzeko makinek eragindako hots-emisioen saiakuntzena, aplikatu beharreko araudiaren arabera (2000/14/CEE Zuzentaraua, RD 212/2000 ED; EN ISO 3744 araua), ziurtatzen den gehienezko hots-potentzia aseguratua maila adieraziko duena.

7. XASISEN EZAUGARRI TEKNIKO OROKORRAK

Autobastidoreak ezaugarri egokiak izan behar ditu baldintza hauetan zehazten diren elementuak hartu eta garraiatzeko, bere karga-aukeretara egokituz eta horien barruan maniobra errazteko dimentsio murriztuagoetara.

Indarrean dagoen legeria bete beharko du, batez ere ardatzetan pisuen banaketari buruzkoa, gutxienez ekipamendu honekin:

- Motorrak European indarrean dagoen araudia bete behar du. Pare handitik biraketa apaletara, indar-hartzea onartzeko moduan, karrozeriako punpen eragintzarako beharrezko potentzia emango duena, ahalik eta biraketa gutxienezko minutuko, prestazioak mantenduz (ziklo-denbora, prentsaketa, koipeztatzea, etab.). CE 80/1269 arauari jarraituz, zehaztu motorraren minutuko biraketen arabera lorturiko pare-kurba.

Baldintza teknikoen agiria – hiri-hondakinak bildu eta garraiatzeko ibilgailuz hornitzea

- Kaxak eskatzen dituenetara egokitutako indar-hartzea. Etengabeko konexioan, hau da, ez dezala eska enbragatu eta desenbragatzea gune bakoitzean. Aurreko puntuarekin koherentzian, indar hartze-punpa multzoak ahalik eta minutuko bira kopuru txikienean funtzionatu behar du. Indar-hartzearen marka eta modelo zehaztu behar dira.
- Abiadura-mugatzaila, legezko abiadura maximoan erregulatua.
- Esekidura-sistema, ibilgailuaren luzetarako nibelazioa bermatuko duena, bai hutsik eta bai erabat beteta dagoenean.
- Ihes-hodi bertikala, larruazalean erredurak eragozteko babestua, indarrean dagoen aplikazioko Arauaren arabera.
- Isuriei buruzko EURO V araudia beteko du, eta ahal bada EEV estandarra, eta hori dagozkion ziurtagiriekin egiaztatu behar da.
- Martxa-kutxa automatikoa. Ez dira onartuko martxa-kutxa “pilotatuak”, “automatizatuak” edo antzekoak. Zehaztu egingo dira martxa-kutxaren marka eta eredua.
- Kabina motza, kolore zurikoa, Mankomunitateak entregaturiko diseinuen arabeko logotipo eta legendekin errotulaturia.
- Direkzio lagundua.
- Altueran eta distantzian erregula daitekeen bolantea.
- Klimatizagailu edo aire girotua.
- Kabinan homologaturiko hiru postu segurtasun-gerrikoekin.
- Atzerako ispilu kalefaktatuak lurrunaren aurkakoak. Bat panoramikoa ate banatan eta beste bat gehigarria kopilotuaren aldean, eskuineko gorpila kontrolatzeko. Barrutik elektrikoki erregulatzeko modukoak, gutxienez kopilotuaren aldekoa. Ispilu panoramikoa aurrealdean.
- Beira-igogailu elektrikoa.
- Horometroa eta biraketak zenbatzekoa, aginte-koadroetan integratuta.
- Takografo digital kalibratua.

Baldintza teknikoen agiria – hiri-hondakinak bildu eta garraiatzeko ibilgailuz hornitzea

- Lainotako argiak.
- Kabinatik jaisterakoan esku-freno edo balazta eragin gabe dagoenerako hots-alarma.
- Argi birakari distiratsuak, araudiak eskatzen dituenak, anbar kolorekoak goiko aldean, angelu guztietatik ikusteko modukoak eta langileak ez itsutzeko moduan kokatuak.
- Bi su-itzalgailu, indarrean dagoen araudiaren arabekoak, euskarriak barne.
- Ez irristatzeko zorua, garbigarria, erraz ateratzeko modukoa.
- Ez irristatzeko pintura ateetako hegaletan, baldin eta hor bermatu beharra baldin badago kabinara sartzeko.
- “Esku libreko” instalazioa, marka askorentzat balio duena, aginte-mahaian integratua, hari gabeko konexiodun mugikorrarentzat.
- Irratia CD.
- Erregai-tanga giltzarekin.
- Kaxa handia kate eta beste elementu osagarri batzuentzat. Tresna edo erreminta-hornidura osoa (argiak, katua, hirukiak, etab.), baita euskarriak, ordezkoko gurpila eta jaka islatzaileak ere.
- TB kamera eta kabinan monitoreo atzera martxako maniobra kontrolatzeko.
- Atzera martxako hots-ohartarazlea, txistu-potentzia aldakorrekkoa, aplikazioko araudiaren arabera.
- Kolpe-leungailuak, ahal bada, metalezkoak.
- GPS bidez kokapena kontrolatzeko sistema gero ezartzeko aurrez egindako instalazioa, eta bilketak kontrolatzeko unitatea, honako hauen bidez:
 - Antena baten instalazioa ibilgailuaren goiko aldean (ibilgailuz kanpo).
 - Kontrol-unitate, GPS hargailu eta abar energiaz hornitzeko, baita elementu desberdinen artean datu-transferentzia ahalbidetzeko ere, beharrezko kable guztiak jartzea.
 - Sistemaren elementuak ahalik eta ongien integratzea ibilgailuaren bidaiari-lekuan.



Baldintza teknikoen agiria – hiri-hondakinak bildu eta garraiatzeko ibilgailuz hornitzea

- Dena den, kontratua izenpetu ondoren, gero jarriko diren ekipamenduek eskatuko dituen premia tekniko propioak zehaztuko ditu Mankomunitateak; are gehiago, esleipendunari eskatu ahal izango dio tresneria hori hornitzailearekin ondo koordinatuta instalatzea (horiek eskura baldin badaude ibilgailuak entregatu aurretik).
- Koipeztatze automatiko zentralizatua posible diren gunek guztietarako: kaxa, jasogailua eta xasisa.

Erabilera eta mantentze-lanetako eskuliburuaren kopia bat euskarri digitalean eta bi paperean entregatu behar dira gaztelaniaz, ibilgailuaren elementu guztien desmuntatzearekin eta zirkuitu elektriko, pneumatiko edo/eta hidraulikoen planoekin. Edukiak bat etorri behar du EN ISO 12100-2 Arauko 6.5 atalarekin. Prebentzio-mantentzea eta mantentze-programa izan behar ditu, eta mantentze-prozeduraren informazio zehaztua eman erabili aurrekoa, ondorengoa eta aldian behingoa. Segurtasun-informazioaren atal espezifiko bat, mantentze-lanetarako segurtasun-neurri, arreta orokor eta segurtasun-jardunbideekin. Halaber, mantentze-lanetako langileen prestakuntzarako gutxieneko eskakizunei buruzko informazioa ere behar du.

Gutxieneko prestakuntza-ikastaroak (prestakuntza teknikoa eta laneko arriskuen prebentziokoa), esleipendunek egin beharrekoak:

Gidariantzat.

Lantegi edo tailerreko langileentzat, mantentze eta konpontze-lanei buruzkoa, Tailer-buruaren iritziz behar hainbat luzea (35 ordukoa), teoria eta praktika barne.

Ikastaroak Debagoieneko Mankomunitateko eremu geografikotik kanpo egiten badira, sorturiko gastu guztiak esleipendunaren kontura izango dira.

Parte-hartzaile bakoitzari jasotako prestakuntza egiaztatzeko diploma emango zaio, eta Mankomunitateari parte-hartzaileen zerrenda, prestakuntza-orduen kopuruarekin eta emandako irakasgaien edukiarekin.

Saldu ondoko zerbitzua: saldu ondoko zerbitzua zehaztu behar da, lantegi ofizial baimenduen sarea zehaztuz, baliabide material eta giza baliabideak, langileen prestakuntza teknikoa eta horien kokapen geografikoa, baita ordezkoko piezen biltegiaren kokapena ere. Hornitzaileak ordezkoko pieza jatorrizkoen hornikuntza bermatu behar du ondorengo 10 urteetan ibilgailuak hartzen direnetik aurrera.

*Baldintza teknikoen agiria – hiri-hondakinak bildu eta
garraiatzeko ibilgailuz hornitzea*

Hornitzaileak beharrezko dokumentazio, ziurtagiri eta homologazio guztiak entregatuko ditu.

EGINBIDEA.- Baldintza Agiri hau Mankomunitateko Gobernu Juntak onartu zuen, 2012ko apirilaren 26an egindako bilkuran.

**Arrasaten, 2012ko maiatzaren 30ean.
IDAZKARIA**

Izpta.: Belén Txintxurreta